

## Martin Aranburu

*Politologoa*

**1.** Kultura eta hizkuntzaren defentsan oinarritutako katalanismo kulturalak XIX. mendetik hona, eta katalanismo politikoak azken hamarkadetan indar handia izan dute. Baina independentziaren aldeko aldarriak azken lau urteotan baino ez du lortu hegemonikoa izatea. Nola osatu da diskurtso subiranista hori, eta nola iritsi da hegemoniko izatera?

Kataluniak bizi duen prozesu subiranistaren abiapuntua 2006an kokatzen dut nik. Noski, horrek ez du esan nahi planteamendu independentistak ez daudenik aspalditik Katalunian, baina ez dute orain arteko indar sozial eta politikorik izan. Azterketa politologiko eta soziologiko batek lagundu gaitzake prozesu honen hainbat gako ulertzen.

Independentismoaren gorakada azaltzen duen faktore politiko nagusia paktismoaren bukaera da. 2006ko Estatutu erreformaren prozesuak eta bereziki 2010eko Auzitegi Konstituzionalaren sententziak garbi erakutsi zioten Kataluniako gizarteari bere borondateak ezer gutxi balio zuela eta Espainiak markatzen zituela garapen politikoaren mugak zeintzuk ziren. Paktismoa, hots, itun politikoa ez zen posible. Konstatazio horrek alderdietan ere aldaketa handia suposatu zuen. Aldaketa bereziki azkarra eta sakona CDCren kasuan. Izan

ere, 2012ko Biltzarrean onartzen du CDCk bere ponentzietan lehendabizikoz *estat propi* kontzeptua. Aldaketa horren bultzatzaile nagusiak diren agintari politikoek 2004ko Biltzarrean asumitu zuten CDCren boterea, estrategia paktista alde batera utziz eta, pixkanaka, subiranotasunaren aldeko diskurtsoa asumituz. Aldaketa horren zergatia 2006ko Estatutuaren porrota izan zen, agintari horientzako, Mas buru, Espainia eta Kataluniaren artean elkar ulertzeko ezintasunaren konstatazioa izan baitzen. ERCren kasuan, agintari aldaketa bat ere aipatu behar da. Partit dels Socialistes de Catalunya (PSC) eta Iniciativa per Catalunya-Verds (ICV) alderdiekin batera egindako hirukoak porrot egin zuenean, ezkerreko katalanismo eta espainolismoaren arteko kolaborazioaren porrota ere izan zen; ondorioz, ERCK garbi ikusi zuen estrategia aldaketa beharrezkoa zela. Oriol Junqueras eta Marta Rovirak pertsonifikatzen dute estrategia aldaketa hori.

Arrazoi ekonomikoek ere garrantzi handia izan dute, baina uste dut ez dela zuzena prozesu politiko hau arrazoi ekonomikoetan oinarritzea. Bestela planteatuko dut auzia: Espainiak Kataluniari «Kontzertu Ekonomikoa» emango balio, kohesio politiko nagusia puskatuko litzateke eta sostengu soziala murriztuko litzateke? Duran i Lleidaren Unió Democràtica de Catalunya (UDC) kontsentsu politikoa utziko luke, baina CDC, ERC, ICV eta CUP alderdiek prozesuarekin jarraituko lukete ziurrenik. Arazoa ez baita soilik ekonomikoa, duintasun politikoari lotutako auziak ere badaude tarteko. Sostengu soziala murriztuko litzateke ziurrenik, baina zein proportziotan esatea ezinezkoa da.

**2.** 2010etik hona, hainbat plataforma eta elkartetan antolatutako gizarte zibilak hartu du prozesu subiranistaren gidaritza, alderdi eta erakunde politikoak bide horretara ekartzea lortuz. Zergatik eta nola iritsi da gizarte zibila antolaketa-maila eta erakarpen-indar hori izatera? Gizarte zibilaren indarra aztertzeke, bi dira nire ustez aztertu beharreko gaiak: zerk eragin du subiranotasunaren aldeko

gizartearen borondatea, lehenik; eta, bigarrenik, zeintzuk diren kutsu zibil horren arrazoiak.

Kataluniako gizarteak bere duintasuna ikusi du azken urteetan erasotua. Eta duintasun horrek eragin du Espainiare-

## Estatutuaren prozesu osoa eta nagusiki Auzitegi Konstituzionalaren 2010eko sententzia oso kolpe gogorra izan zen kataluniar askorentzat

kiko neke sakon-sakon hau. Adibide esanguratsu batzuk azalduko ditut duintasun urraketa hori hobeto azaltzeko. Krisi ekonomikoak areagotu egin du trataera ekonomiko txarraren iritzia. Urtero, ordaindu eta jasotzen denaren arteko aldea 18.000 milioi €koa da, 2.500 € biztanle bakoitzeko. Halere, beste trataera ekonomiko baten aldarria orokortuz zihoan neurrian, Espainiatik datorren erreakzioa zein izango:

kataluniarrei elkartasun falta, norberekeria eta abarrekoak leporatzen zaizkie. Geroz eta orokorragoa da Kataluniak Espainian bidezkoa ez den tratu ekonomikoa pairatzen duelako iritzia.

2006ko Estatutu erreforma hasi zenean, Kataluniak bere burua naziotzat jo nahi zuelako, antikatalanismo nabarmena hedatu zen Espainiako hainbat iritzi emaile eta alderditan. Antikatalanismo sentsazio hori asko indartu zen 'cava'-ren aurkako boikotak aktibatu edo Gas Natural eta Endesaren arteko fusiorako jarri ziren oztopo politiko guztiak agertu zirenean. Azkenik, Estatutuaren prozesu osoa eta nagusiki Auzitegi Konstituzionalaren 2010eko sententzia oso kolpe gogorra izan zen kataluniar askorentzat: Kataluniako Estatutuan onartuak ez ziren hainbat puntu Andaluziako Estatutuan onartu ziren; Estatutuaren aurkako sinadura bilketa publikoak egin ziren; Parlamentuak bozkatutakoa gero Madrileko Kongresuan aldatu zuten, eta, azkenik, erreferendumean onarturiko testua aldatu eta murriztu egin zuen Auzitegi Konstituzionalak.

Azken finean, konstatazio bikoitza egon da: bata, Espainia ekonomikoki galera dela, eta, bigarrena, Espainia beti inposatuko zaiola Kataluniari. Bi aldagai horiek orokorrean asumitu direnean etorri da independentismoaren gorakada nabarmena.

Eta zergatik prozesu zibila? Kataluniako gizartea aspaldian dago ikuspuntu zibil batetik oso antolatua, eta, gainera, antolaketarako tradizio soziologiko indartsua ere badago. Erabakitze eskubidearen aldeko plataformak, independentziaren aldeko enpresari elkarteak edo kultura elkarte independentistak ez dira gaurkoak. Beti egon dira. Independentziaren alde lan egin nahi duten pertsonen eragile sozial horiengana jotzen badute, mobilizazio ahalmenagatik da, alde batetik, eta, bestetik, paktismo kutsu handia izan duen politikatik aldutzen direlako. Politikak, edo zehazkiago, alderdi politikoek egin dezaketenarekin fede gutxi dago, eta, beraz, aktibismo sozialera kanalizatzen dira aldarrikapenak.

**3.** Nolakoa jarrera hartu dute gizarte katalaneko sektore ezberdinek prozesu subiranistaren aurrean? Zehazkiago, nola erantzun dute eragile ekonomikoek, enpresari eta sindikatuek? Eta Elizak?

Lehenik onartu beharreko aspektu positiboa da jarrera bat hartu dutela. Urte askotan Kataluniako gizartean aldarrikapen independentista egon da, baina ez du debate politikoan zentralitatearik izan. Gai marjinala zen, eta ez zuen gizartearen gehiengoan inolako presentziarik.

2006az geroztik, hiru izan dira debate politikoaren zentralitatea hartu duten gaiak: itun fiskala, erabakitzeko eskubidea eta independentzia. Itun fiskalaren inguruan, eragile ekonomikoek, enpresari elkarte gehienek eta sindikatuek ahobatezko adostasuna erakutsi dute. Esanguratsua da, adibidez, Foment del Treball elkarteak, CEOE espainiar patronalaren kide denak, ez zuela itun fiskalaren aldeko postura hartu (nagusiki alderdi abertzaleen diskurtsoa asumitzea zelako), baina Espainia eta Kataluniaren arteko akordio ekonomikoen

negoiazio berri bat aldarrikatzen zuen. Adierazgarria ere UGTren postura, itun fiskalaren aldarrikapena egiten baitzuen, baina Katalunia Espainian modu egonkorrean txertatzeko forma legez.

Erabakitzeo eskubidearen inguruko adostasuna ere handia da. Erabakitzeo eskubideaz ari garenean, ondo ulertu behar da bozkatzeo aukeraz ari garela, bestela esanda, galdetuak izateko borondateaz. Kutsu demokratikoa eman zaio aldarrikapen horri debate politikoan, eta bertan bat egiten dute «independentistek», «federalistek» zein «unionistek». Bi sindikatu nagusiek, esaterako, publiko egin dute erabakitzeo eskubidearen aldeko postura, bozketan ezezkoaren aldeko deia egingo badute ere. Foment del Treball elkartearen kasuan, Joaquim Gay de Montellà presidentek batzar propioa deitu zuen gai honen inguruan erabaki bat hartzeo, ezin baitzuen elkarte legez posturarik ez eduki. Antzeko postura izan zuen ere PIMEC enpresari ertain eta txikien elkarteak, gai politikoa zela argudiatuz ez baitzuen azkenean postura publikorik hartu nahi izan. Jarrera independentista garbia dute bestelako enpresarien elkarte batzuek, esaterako, Cercle Català de Negocis edo FemCat elkarteek.

Independentzia, zer esanik ez, kontsentsu gutxien duen auzia da. Alde batetik, eragile sindikal nagusiak Katalunian, UGT eta CCOO, independentziaren aurka azaldu dira organikoki. Katalunian sindikatu abertzale garrantzitsurik ez dagoela gogoratzea komeni da hemen; ondorioz, sindikatuek iritzi guztietako pertsonak dituzte afiliatutzat. Bestalde, enpresarien esparrutik, elkarte nagusiek ez dute independentziarekin bat egin, baina beste elkarte batzuk bai azaldu dira aukera horren alde.

Elizaren inguruan konstatazio garrantzitsu bat egin behar da: ez dago kataluniar Elizarik, Katalunian dagoen Eliza baizik. Hau da, ez dago Katalunian, Espainian bezala, kontzientzia nazionala duen Elizarik. Badaude, zer esanik ez, planteamendu ofizialetik at bere iritzia publiko egiten duten norbanakoak. Zentzu horretan, Montserrateko abadeak postura garbia hartu

du erabakitzeko eskubideaz, eta garbi esan du Kataluniako Eliza balizko independentzia baterako prest dagoela.

**4.** 2014ko agertoki politikoa definituta dagoen bezala, Kataluniaren eta Espainiako Estatuaren arteko talkak saihestezina dirudi. Epe laburrera begira, zein erreakzio izango dute Kataluniako alderdi eta erakunde politikoez zein gizarte zibilak?

Prozesuak bektore bikoitza du, politikoa eta soziala, baina bien arteko nolabaiteko osagarritasuna badago. Politikoki oso garbi azaldu da plana zein den: Parlamentuak galdeketa egitea bideratuko duen lege-dia onartuko du eta jarraian galdeketa egingo da. Galdeketa baietzak irabazten bada, espainiar erakundeekin Kataluniaren independentzia bideratuko duen prozesuaren negoziaketari hasiera eman-go zaio. Aldarrikapen sozialaren erakusgarri garrantzitsuena den Asamblea Nacional Catalana (ANC) erakundeak 2015eko Sant Jordi egunerako independentzia aldarrikapena eskatu du. Ez dira bi bide kontrajarri bezala ikusi behar. Eragile nagusiek, ANC kasu, onartzen dute gidaritza politikoa bultzatzaile eta bermatzaile funtzioa. Argi dago, halere, eragile sozialek markatu nahi duten erritmoa ez dela eragile politikoez, gobernuak kasu, markatu dezaketena.

Prozesuak bektore bikoitza du, politikoa eta soziala, baina bien arteko nolabaiteko osagarritasuna badago

Galdeketa alderdiek honako galdera adostu dute:

1. *Vol que Catalunya esdevingui un estat?* (Katalunia estatu bihurtu dadin nahi duzu?)
2. *Vol que aquest estat sigui un estat independent?* (Estatu hori independentea izan dadin nahi duzu?)

Galdeketa hori erabat legala izatea nahi dute, barne eta kanpo zilegitasuna irabaziz. Espainiar erakundeek ez dute noski galdeketa ahalbidetuko, eta Parlamentuak sor dezakeen

marko legala Auzitegi Konstituzionalak ezereztatuko du. Egoera hori aurreikusita, Mas presidentek behin eta berriz azaldu duen planaren arabera, herriari bere iritzia zeharka galdetuko zaio hauteskunde autonomikoei «plebisitario» kutsua emanaz. Plan horren arabera, erabakitzeko eskubi-dearen alde dauden alderdiek planteamendu ahalik eta garbiena egingo diote hautesleriari, hauteskundeetan garaipena lortuz gero, jarraian, aurretiaz azaldutako urratsak egikaritzuz.

Galdeketa-formula zein hauteskunde-formula erabilita, herriaren partetik egongo den sostengua da gakoa. Sostengu horri buruz, Centre d'Estudis d'Opinió erakundeak publiko egindako azken txostenean %54,7k «Bai» bozkatuko luke independentzia erreferendum batean. Datu hori benetan lotesleak izango diren hauteskunde zein galdeketa-mantentzen ote den ikusteke dago.

**5.** Kataluniako prozesu subiranistaren azken fase edo geltokia estatu independentea da. Azken helburua argi egonagatik, zer proposamen daude estatu horren diseinuaren definizioari begira?

Herriari etorkizunari buruzko galdera zehatza egiteak baiezaren edo ezetzaren aldeko argudioak probokatu ditu zuzenean. Eragile asko ari dira argudio horiek idazten: Espainian zein Katalunian, eragile sozialak zein gobernuak, eta arlo desberdinak jorratzen dituzten argudioak.

Egin diren planteamendu guztiak errepikatzea luzeegia litzateke, zorionez asko baitaude. Aldeko eta kontrako jarrerak laburbildu nahian, independentziaren kontrakoek nagusiki argudio ekonomikoak eta nazioarteko isolatzea erabiltzen dituztela azalduko nuke. PPren FAES Fundazioak edo Espainiako hainbat ministeriok hainbat txosten argitaratu dituzte Kataluniak pairatuko dituen galera ekonomikoak azalduz eta Europar Batasunean zein Nazio Batuen Erakundearen Kataluniaren aurkako jarrera behin eta berriz gogoraraziz. Haustura soziala edo gaztelaniaren diskriminazioa ere azaldu izan dira debate publikoan, nahiz eta indar gutxiagorekin.

Independentziaren aldekoak ere ari dira argudioak eskaintzearen ahalegin horretan. Gobernuak sorturiko Consell Assessor per a la Transició Nacional erakundeak sei txosten egin ditu jada. Fundació CatDem, Sobirania i Justícia, El Clauer elkarte, Cercle Català de Negocis eta Col.lectiu Wilson dira arloka etorkizuneko Kataluniari buruz aritu izan direnetako batzuk. Katalunian ez dago oraindik eskoziarren antzeko liburu zuririk, baina asko dira galdera zehatzei erantzun zehatzak ematen dizkieten txostenak eta analisiak.

## 6. Zer irakaspen izan ditzake Euskal Herriarentzat Kataluniaren prozesu subiranistak? Eta zer ekarpen egin diezaiokie Euskal Herriak prozesu horri?

Euskal Herria eta Katalunia antzeko errealitateak direla dioen axioma puskatu nahi dut lehenbizi. Estatu beraren zati izateak askotan konparaketa sinpleegiak egitera eramán gaitu. Herri bakoitzak bere izateko modua du, propioa eta eskusiboa; beraz, herri desberdinetako herritarrek forma eta modu desberdinak topatzen dituzte beraien arazoak konpontzeko. Euskal Herrian populazioaren zati txiki batek borroka armatua ontzat jotzen zuen; Katalunian, ordea, aukera hori beti alboratu izan dute. Era berean, kataluniarrek Espainiako gobernu desberdinekin egiten zituzten hainbat itun oso ulergaitzak izan dira euskaldunentzat. Edota hizkuntzarekiko herri bakoitzak duen trataera, adibidez: Katalunian kostatu egiten baitzaie ulertzea euskaldun abertzale batek nola uko egin diezaiokeen euskaraz hitz egiteari. Eta horrela hainbat eta hainbat adibide. Elementu komunak badaudela argi dago, azken finean gure garapen politikoa marko estatal berean eman baita; baina, halere, bi herri desberdin izanik, bakoitzak bere bide propioa egin behar du, norberaren ezaugarri soziologikoetan oinarrituko den prozesu propioa.

Euskal Herriak baditu ikasi beharreko bi irakasgai: tolerantzia eta herriaren konpromisoa. Giza eskubideen urraketa maizegi ezagutu duen errealitate batetik etorruta, niretzat oso txalogarria da norberaren iritzia publikoki adierazteko



dagoen askatasuna. Adierazpenak egiten dituzten eragileek edota norberaren etxean Espainiako bandera edo *estelada* zintzilikatuz jarrera adierazten duenak ez du inolako koertzio edo inposaketarik sentitzen. Bigarren irakasgaia herriari dagokio: herriaren aktibazioa eta inplikazioa ezinbestekoak dira aldaketa handiak probokatzeko. Egun Katalunian bizi dugun prozesua ezinezkoa litzateke 2009, 2010 eta 2011n antolatu ziren herri kontsultak gabe edo azken bi urteetan antolaturiko manifestaldi erraldoirik gabe. Herriaren bultzada indartsu eta konstanterik gabe gertaera politikoak oso bestelakoak izango ziren. Zalantzarik ez izan. 🇪🇺